

# Bakeak zein zapore?

Urriaren 17an Oslon publikoki abiatu hizketek itxaropen franko piztu dute Kolonbian, baita nazioartean ere. Aitzitik, mugimendu herrikoietako ordezkariak mende erdiko gerla apropos amaitzeko aterabide integralak igurikatzen dituzte.

| HARTZEA LOPEZ ARANA |

MARCHA PATRIÓTICA



Marcha Patriótica mugimenduaren manifestazioa Bogotan, bakea eta justizia soziala aldarrikatuz.

BAKEAREN AMETSAREN sorburua, gatazkaren konponbiderako lehen pauso ezinbestekoa, errotik landu gabeko akordioen sinatzea, aurretik itundu pailazokeri hutsa... FARC-ek eta ELN-k garaipen militarra lortzea eta Kolonbiako Gobernuak gerrillekin bukatzea ezinezkoa direla onartu ondoren, Norvegian eroa-

ten ari diren elkarrizketek zernahi iritzi pizten dituzte Kolonbian gaindi. Mugimendu zibilek inizatiba biolentziaren desaktibaziorako mugarri gisa jo badute ere, beste arazoek iraungo duten beldur dira. "Justizia sozialik gabe bakerik ez" irakur daiteke Bogotako alde zaharreko tindaketaz josi paretetan.

Álvaro Uriberen zortzi urteko agintaritzan Kolonbiako Estatuaren "paramilitarizazioa" orokor bihurtu zuen. Orduko kontzeptu eta egiturak indarrean daude oraino: "Terroristen beso politiko" kutsua atzematzen zaion edonoren kontrako gerla politikoa eta judiziala, eta kanpoko interbentzio militarren onar-

**Alirio Uribe Muñoz**

José Alvear Restrepo kolektiboko abokatua

**«Berehalako su-eten orokorra ituntzea premiazkoa da»**

HOGEITA BOST URTE darama Alirio Uribek kolonbiarren eskubide ekonomiko eta politikoan aldeko zereginetan lanean, paramilitarrek aldizka luzatzen dizkioten heriotza mehatxuei aurre eginez. FIDH (Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa) nazioarteko erakundearen lehendakariorde ere bada.

**Nola dakusazu elkarrizketa tanda berri hau?**

Iduri luke Osloko aktoreek lehen-tasunez eurei zuzenean dagozkien gaiak trenkatu nahi dituztela. ELN mahaira gomitatzea garrantzizkoa da: kanpoan gelditzen badira FARC-eko kide zenbait erakunde horretara pasa litezke ika-mika betiketuz. Dena den, biolentzia ziklikoki errepikatzea jendartearen mobilizazio egokiaren absentiari dagokio ere. Kolonbiak aldaketa politikorako potentzial handia dauka eta prozesuan aktiboki parte hartzea tokatzen zaigu.

**Abokatu kolektiboak FARC-i eta Santos lehendakariari idatzi publiko helarazi berri die. Zer eskatzen diezue?**

Zigorgabetasunik gabeko bakea sustatzeko atariko ekarpenak ezagutaraztea dugu xede. Gatazka gainditzea ez da soilik armak isilaraztea. Demokrazia sendotzearekin lortuko dugu bakea. Sektore sozialek prozesu honen indartzeko asko dugu egiteko eta errateko, gerrillak eta Estatuak ezin baitute ordezkapen herrikoia beretzat bakarrik hartu. Aktore armatuek burutu zuzengabekeriak zuritu nahi izatea ulergarria da, are gehiago inor garaitua izan ez den negoziaketa mahai baten inguruan. Baina erasan komunitateek euren borrarok justiziarri eskapatzen ikustea eztabaidagarria da. 1996tik 2012ra 30.665 hil-keta estrajudizial eta desagerketa izan dira, gehienak talde paramilitarren eta Estatuaren indarren eskutik. FARC-ek ere gehiegikeriak argitu behar ditu: non daude agertzen



pena; narkotrafikatzaile eta lurjabe aliatuekin jarrera bihozbera batzuk ez aipatzearren. “Santos-ek bakearen lehendakari gisa pasa nahi du historiara, gerrillaren problema gainditurik 2014ko hauteskundeak berri irabazteko. Diskurtso aldake-

ta nabaria gertatu da Uriberen Gobernuaz geroztik eta jende eskubideen alorrean nazioarteko presioak oso behera egin du. Baina erasoen maiztasuna ez da baretu”. Hitzak Lorena Rodríguez-enak dira, zonalde jazarrietan diharduten bake brigaden boluntarioa. Gorputz militarren arazketa eta seguritateko gastuen beherapen drastikoa lirateke haren iritziz normalizaziora hurbiltzeko lehen gakoak, barkamen zintzoen eta Uribe lehendakari ohia auzipratzearen aiduru.

**Ahots suminduak entzungai**

La Habanako aitzin solasaldiak martxan zirela, leherketa, atxiloketa eta segada eta notiziek ez zuten pausarik izan. Ejertzitoaren presentzia izugarria ikus zitekeen nonahi. Bogotan ere bazen giro: grebak unibertsitateetan, batza-

rrak, manifestaldiak... ONIC erakunde indigenen bost mila delegatuek aste osoko kongresua zeukaten hiriburuko auzo herrikoi batean. Luis Evelis Andrade ONIC-eko sailburuaren aburuz “gure lurraldeetan distentsioa jar-

**“Hildakoen %95 ez dituzte balek eragiten. Zuzentasun ekonomikoa konpontzearekin helduko ginatke bake sakonera, gerla ez baitago errealitate horretatik at”**

**Evelis Andrade,  
ONIC erakunde indigenako sailburua**

**LUAarkitektoak**  
 hirigintza  
 hirigintza aholkularitza  
 udal planak  
 urbanizazioak  
 periferiazioak  
 balorazioak  
 etxebizitza proiektuak  
 birgaitzeak  
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97  
 Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
 lua@luark.com

ez diren bahituak? Kasu guztietan, argi dugu ekintza penalak ezin duela simetrikoa izan. Estatuaren krimenen eragileak zorrotzago zigortu behar lirarteke, gerlaren arduradun nagusiak eta gerrillen existentziaren faktoreak izanki.

**“Alde bakoitzak indar erakustaldiei ekin diezaieke, edozein ekintza prozesuaren kontrako bumeran bihurtuz”**

Elkarrizketen harira baikortasun neurritsua begiztatzen duzu. Zergatik?

Negoziaketak liskarren etenik gabe jarraituz gero, alde bakoitzak indar erakustaldiei ekin diezaieke, edozein ekintza prozesuaren kontrako bumeran bilakatu. Berehalako su-eten orokorra ituntzeak jendarteari zorigaitzaren iraupena aurretuko lioke, bereziki gatazka gogor dagoen eremuetan. Bestalde, akordioaren onuradunak

tzea gozagarria litzateke. Indigenok su gurutzatuaren erdian gaude, hezkuntza eta osasun programetan baztertuak izateaz gain. Guk diogu hildakoen %95 ez dituztela balek eragiten, setio egoerak eta desnutrizioak baikizik, ezin baititugu aktibitateak normalki gauzatu, laborantzan, mugikortasunean, ehizan. Zuzentasun ekonomikoa konpontzearekin helduko ginateke bake sakonera, gerla ez baitago errealitate horretatik at”.

David Flores Marcha Patriótica mugimenduko ordezkariak, bere aldetik, elkarrizketak “abagune historikoa” direla uste du, nahiz “zailak” iragarri. “FARC armak erregatzearen eta desmobilizazioaren show-an endredatuko dela uste dutenak oker dabilta. Solasaldien arra-

enpresa multinazionalak izango dira, inizatiba honen giblean daude natur aniztasunez jabetzeko zain, momentuz bederen gerrillak kontrolatzen dituen lurraldeetan zaila dutelako ustatzea.

Halere, militarren eskuineko sektoreak eta narkotrafikatzailak dira negoziaketa hauen kontra dauden sektore bakarrak, gerlari probetxua ateratzen diotelako. Denak gaude haietaz akituak eta irtenbide politikoa ekarriko duen akordioa gauzatu dela espero dugu. Gatazkak molde zibilizatuan kudeatzeko premiazko aukera dago, horrek aldakuntza handia ekarriko luke, hemen disidente oro heriotzara kondenatua baitago. Sindikalgintzan, adibidez, urtea hasi zenetik hamazazpi hildako zenbatu ditugu, enpresari eta instituzioek babestutako kriminalizazio kanpainen ondorioz. Osloko elkarrizketak emangarri bihurtuko direla opa dut benetan, bestela gidoi maltzur batera itzuliko ginateke, erasoan lehen lerroan jendarte zibila berriz ere kokatuz.

kastaren giltzarria bata eta bestearen arteko errespetuan datza, gudaren osteko blindatzean. Borroka armatuaren sustraiak demokrazia ezan gorpuztu ziren eta eskubide konstituzionalak gaur egun oraindik ere zapuzten dira”. Urriaren 12ko protesta-egun nazionalaren biharamuna da, eta Floresek baieztatu digu Santos en Gubernuak oraindik ere errepresioari eusten diola. “Gatazkarekin bukatzeko agendaren hedapena aldarrikatzea zen protesta egun horren helburua eta ehunka atxilotu eta zauritu zenbatu dira. Herri osoak bakera ailegatu nahi du, baina parean zeri amore emateko prest daude eliteak? Beste eszenatoki batera heltzeko ahaleginen porrotak arrazoi nagusi bati erantzun die

**VITORIA GASTEIZ**

**Gasteizen euskarazko hauek ez galdu**

**GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!**

\*Gonbit-txartelak astebete lehenago

### ARRIAGA

> **Paperezko ipuinak**  
Ipuin kontalaria  
Azaroak 9, 18:00 (3-6urte)

> **Hasiera**  
Antzerkia  
Azaroak 16, 18:30 (12-36 hilb.)

### IPARRALDE

> **Munduko bira bizikletaz**  
Ipuin kontalaria  
Azaroak 21, 18:00 (5-8 urte)

### ABETXUKU

> **Imajinatu abestiak**  
Ipuin kontalaria musikala  
Azaroak 22, 18:00 (4-8 urte)

### ALDABE

> **Hotz ala bero, ipuinak egunero**  
Ipuin kontalaria  
Azaroak 27, 18:00 (4-8 urte)

### GEU ELKARTEAREN 20. URTEURRENA

> GEUekin mendira irteera berezia  
Azaroak 18, Otogoien - Oro, egun osoko irteera

> Azken inkesta soziolinguistikoaren eta kale neurketaren emaitzen inguruko mahaingurua  
Azaroak 19, Montehermoso, Hortuño aretoa, 19:00

> Irakurle Kluba - Harkaitz Cano “Twist”  
Idazlea bertan izango da  
Azaroak 22, Ignacio Aldekoa kultur etxea, 20:00

> Hedabideen garrantzia euskararen normalkuntza prozesuan jardunaldia  
Azaroak 26, Montehermoso, Hortuño aretoa, 19:00

> Euskal Migrazioen Istorioak-Josu Iztueta  
Azaroak 27, Parral taberna, 20:30

> Zea Mays + Moby Dick kontzertua  
Abenduak 1, Jimmy Jazz GASTEIZ, 21:00

### ARABAKO BERTSOZALEEN 30. URTEURRENA

> Bertsolaritza hizkuntza normalkuntza prozesuan  
Hizlariak: Xabier Paia, eta Andoni Egaña  
Azaroak 21, Montehermoso, 18:00.

> Hizkuntza eta komunitatea egituratzen  
Hizlariak: Jon Maia eta Jon Sarasua  
(Ondoren Mahaingurua) Azaroak 29, Goiuri, 18:00

### LAZARRAGA SARIAK

> Araban arlo sozio-ekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitateak edo pertsonak saritzeko ekitaldia  
BIBAT. Azaroak 30, 19:00

*Maitte duzun hura, euskaraz!*



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udaia



FARCeke eta Kolonbiako Gobernuko ordezkariak urriaren 17an hasi zituzten negoziazioak ofizialki Oslon.

beti, boterean daudenek ez dituztela euren abantailak zalantzan jarri nahi”.

Zurumuru mediatiko eta diplomatiko ugariaren itzalean, akordioen inplementazioak luze jo dezakeela aipatzen da han-hemenka. Unión Patriótica FARC-etik gertu zegoen alderdiak jasandako sarraskiaren mamuak bizirik dirau eta galderak airean dabilta: zein motako birgi-

zartratzea eskaini gerrillarietara? Nola ekin nekazaritza erreformari, tokialdatutako milioika errefuxiatuen itzulerari, lurren banaketari, TLC eta Plan Colombia itunen birmoldaketari? Datorren azaroan AEBetan iraganen diren lehendakaritza hauteskundeetan emaitzek korapiloa askatzeko ala estutzeko eragin zuzena ukanen dute adituen aburuz, Venezuelako Chávezen garaipenaren

adinakoa. “Horixe da gure drama, arrotzek gu baino pisu handiagoa dutela aberastasun natural oparoak oparitzen dizkigun *Locombia* honetan” dio Nelson Uriarte hainbat kolektibotan ibili militanteak: “Dinamika konprometituetan gabiltzan kolonbiarrok batasunera iritsi beharko dugu bakea eraiki eta justizia erdiesteko”. ■



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia